



Abonatu hori:

Zurekin harremanetan jartzen gara udal kiroldegiko fitness gunearen irekieraren berri emateko. Irekiera eguna martxoaren 1ean izango da

Lehenik eta behin, barkamena eskatu nahi dugu instalazioa irekitzeko atzerapen luzeagatik. Izan ere, COVID19AK eragindako pandemia dela-eta itxi behar izan genuen, ondoren euriteen ondorioz uholde handia egon zen instalazioan. Konponketak eta aseguruetikiko izapideak oso motelak eta neketsuak izan dira.

Berriz irekitze honetan, hainbat gai aipatu behar dizkizugu, garrantzitsutzat jotzen ditugunak:

1.- Fitness-gunea irekitzeko protokoloa:

COVID19ak eragindako egoeraren aurrean nahitaez bete beharreko protokolo bat prestatu da, honekin batera doakizuen. Nafarroako Gobernuak emandako araudiei eta instalazioen erabileran segurtasun eta higiene handiagoa dakarten jarduerari erantzuten diona.

2.- Erreserba-sistema:

Osasun-agintarien araudien arabera, derrigorrezkoa da espazio hauek erabiltzeko erreserba-sistema bat izatea. Horregatik, sistema hori eransten dizuegu, baita egun bakoitzerako txandak/ordutegiak ere.

3.- 2020ko martxoan zerbitzua ixteagatik konpentsazioa:

Biratzen zaizuen lehen kuotan, iazko martxoan instalazioa ixtearen ondorioz ezin erabilitako denboraren zati proportzionala deskontatuko da.



4.- Orduategia handitzea fitness-eremuan:

Barañaingo Udalak zerbitzua erabiltzeko orduategia handitzea onartu du, hala nola, igande eta jaiegunetan fitness gunea 9:00etatik 13:00etara irekitzea.

5.- Fitness-guneko begiralearen orduategia:

Zerbitzuaren monitore arduradunaren presentzia-orduategia aldatu da. Aurrerantzean, ondokoa izango da:

- Astelehenetan eta asteazkenetan, 8:45etik 13:00etara eta 17:45etik 22:00etara.
- Astearte eta ostegunetan, 12:45etik 18:00etara.
- Ostiraletan, 8:45etik 13:00etara.

6.- Garbiketa eta desinfekzio-orduategia handitzea:

Kiroldegian ezarritako garbiketei, gauez zein eguerdian, beste garbiketa bat gehitu zaie, 17:30etik 19:30era, instalazio horren higiene-egoera ezin hobea ziurtatzeko.

7.- Araudiak aldatzea eta/edo egokitzea:

Fitness zerbitzuaren antolaketa, bere arau, protokolo, orduategi eta abarrekin, unean-unean indarrean dauden osasun-neurrien arabera alda daiteke.

Berriro ere kirol-zerbitzu honetaz gozatu ahal izatea nahi dugu. Araudiak betez eta erantzukizunik handienarekin egin dezazun eskatzen dizugu, abonatuak pertsona guztien artean kirol-espazio seguru bat partekatzeko.

Eskerrik asko guztioi zuen pazientzia eta laguntzagatik.

Barañainen, 2021eko otsailaren 19an